

Jon Ander Etxebarria

• BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO KONTROL LABORATEGIKO BURUA •

■ ■ ■ Ura egoera onean edukitzeko ardura norena den zehazten du Europako arau berriak, Jon Ander Etxebarriak atzo Miramarren esan zuenez ■ ■ ■ Urak zein osagai izan ditzakeen, garraiatzeko materialak zeintzuk diren, ura egoera onean mantentzeko ardura norena den eta beste hainbat gauza arautzen ditu

«Leku pribilejiatuan bizi gara»

JON ANDER ETXEBARRIA Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Horniketa eta Kalitate Kontrol Laborategiko burua eta Euskadiko Biologo Eskolako dekanoa da. Uraren kalitateaz eta edateko uraren Europako araudi berriaz mintzatu zen atzo, *Hirietako ura XXI. mendean* ikastaroaren barruan.

■ Nolakoa da Euskal Herriko uraren kalitatea?


Leku pribilejiatuan gaude la uste dut, ez baita lehorterik. Lehortee kalte egiten diote uraren kalitateari, isuriak gutxiago desegiten direlako. Hemen ur ugari dago, eta ez daukagu nekazaritza ordeka zabalik ia. Araban beharbada, baina eremu txikia da.

■ Zer egin daiteke ura edateko ona, garbia eta osasuntsua izateko?

Hiru gauza: uraren jatorria kontrolatu, tratamendua eman eta kalitate kontrolak egin. Azken finean, ura edateko on bihurtzea ekoizpen prozesu bat da, fabrika bat. Lehengaia jatorrizko ura da, gero ekoizpen prozesua dago, eta azken produktua. Azken produktuak kontsumorako egokia izan behar du. Ura jatorriz zenbat eta hobea izan, orduan eta hobea izango da prozesua. Hori ingurugiro politika egokiekin lortzen da; urtegiak babestuz, arroak babestuz, horniketa baliabideak kutsaduratik babestuz. Euskadin lortzen ari gara; Zadorrako urtegia babesteko mahai bat egin dute Eusko Jaurilaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Uren Partzuergoak eta Bilbo Bizkaiko Uren Partzuergoak.

■ Nolakoa izan da kutsaduraren bilakaera azken urteotan?

Edateko uraren portzentia handituz joan da poliki-poliki. Bizkaian, adibidez, %98 inguru da ona edateko. Banatzaile handiaren ikuspe-



EDURNE KOCH

gitik ari naiz hitz egiten, baina badakigu denok Euskadin oso sakabanatua dagoela dena: baserriak, alde garaiak eta beste daude, eta leku horietan zaila da kontrolatzea. Arazo toxikologikorik ez dute izaten, euriak sortutakoak izaten dira. Arau berriak aukera ematen du, adibidez, berrogeita hamar biztanle baino gutxiagoko lekuetan araudia ez inposatzeko. Nik uste dut uraren egoera nahiko ona dela Euskadin, ur asko dagoelako, prozesu teknologikoak badauzkagulako eta kalitatea

zorrozki kontrolatzen dugulako.

■ Euskal Herriak betetzen al du Europako araua?

Txosten bat egin behar izan dut Bizkaiko Ur Partzuergoarentzat, eta arauak betetzen ditugu. Tratamendu prozesua ez dugu aldatu behar, eta kloroa erabiltzen jarrai dezakegu desinfektagarri gisa. Beste lekuetan berdintsu gertatuko dela pentsatzen dut. Beste arazo batzuk izango dituzte agian, baina ez dira zailak konpon-

■ Datorren urteko abenduan amaituko da Europako arau berria indarrean jartzeko epea. Martxan jarriko al da ordu-rako?

Indarrean jarri beharko litzateke, baina ez litzateke izango Espainiak hitzarmen bat betetzen ez duen lehen aldia, eta ez nintzateke harrituko beteko ez balute. Osasun Ministerioak epea betetzea espero duen arren, hainbeste jende parte hartuko duenez —Defentsa Ministerioak...—, zaila ikusten dut. Aurten ikusiko dugu ea bul-tzadarik ematen dioten.

■ Zeintzuk dira arau berriaren eta zaharraren arteko ezberdintasunak? Zein alde on eta txar dituzte?

Alde batetik, aurreko arauak baino hobeto definitzen ditu erantzukizunak. Ura hornitzen duenak ardura hartzen du ur hori kontsumitzaileengana egoera onean irits dadin. Jabeen komunitatea pribatua da, hornitzaileak ez da komunitateak dituen baldintzen erantzule. Hori lehen ez zegoen hain definituta, eta orain, berriz, argi dago. Osasun agintaritzak etxeetako sistemaren erantzule da publikoarentzako denean ura: ospitaleak,

leku publikoak, jatetxeak eta ikastetxeak. Gainera, sistema pribatua modu onean egon dadin zaindu behar du, ikuskatu, baina ez da erantzule. Arauak ezarri behar ditu kontsumitzaile komunitateak jakin dezan zein neurri hartu behar dituen. Arau berriak, halaber, finkatuko du nola egin behar duen kalitateari buruzko txostena estatu kide bakoitzak. Txosten hori Europako Batzordera bidali behar dute. Bestetik, parametroak gehiago zehazten ditu arau berriak. Munduko Osasun Erakundearen datuetan oinarritzen ari da konpuesto organikoen balio parametrikoko definitzeko, eta giza osasunean eragina izan dezaketen produktuen gaineko kontrola askoz handiagoa izango da.

Eta arauaren alde txarrak: zenbait gauzatan sortzen diren anbiguotasunak. Urak kontsumitzailearentzat onargarria izan behar duela esateak, esaterako, ez du ezer argitzen, oso subjektiboa baita. Estatuaren zeregina izango da araua indarrean jartzean behar bezala definitzea.

Ainara Mendiola
DONOSTIA

Kalitatea

«Egoera ona da Euskadin; ur asko dago eta kalitatea zorrozki kontrolatzen dugu»



Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria